

UGARTE-RI GEHIGARRIAK.—1969-ko EGAN-en, 4-6 zenbakiaren *Adabakiak* sailean, 103 orrialdean *Ugarte*-ri buruz zenbait lako lehendabizikoz *Ugartek*, *ur-arte*, erderazko *entrambasaguas* edo ohar argitara eman nituen. Nere argitasunen oinharri Mitxelena-ren *Apellidos vascos* (1953) liburua hartzen nuen, ez berak esaten duentzerako zerbaite esan nahi zuela eta ez *isla*, batzuek oraindik uste duten bezala, baizik liburu hori etimologiaren oinharritzat hartzen nuelako, libururik onena dalako gai honi buruz. Eta honek ez du esan nahi hor zehar sakabanaturik askozaz ere lehenagotik ez daudenik era honetako iritziak.

Pozgarria izan zait gai honi buruz Justo Garate-gandik hartu dudana gutuna, esanez bera ere iritzi berdinekoa dela, edo hobeto esan, berak lehendik esanik zuenarekin hain ados natorrela. Iritzi

hau, *confluencia* bezala, 1929-an agertu zuela lehen aldiz Bilboko egunkari batean eta azkenez 1969-an Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos (Buenos Aires) aldizkariaren 76-garren zenbakian, urtarrila-martxoa, 40-gn. orrialdean.

Gaineratzen dizkidan ohar jakingarrienak hauek dira: 1934-an Humboldt-en *Berichtigungen und Zusätze* itzuli zuenean, bertako 49... orrialdearen pean hau argitara zuela: «Creo que Ugarte es *enterríos* no siendo nunca isla, aunque lo diga Astarloa (*Apología*, 2 edición, página 87) a quien sigue casi todo el mundo.» Eta, 1935-an, Mogel-en *La Historia y Geografía de España* liburuan dakar, 315-garren orrialdean: «...entre dos riachuelos y esto quiere decir *Uarte*»; eta azpikaldean Justo Gárate-ren oharra: «Véase la pág. 271. Tiene razón, pues es como *Entrambasaguas* y *Laka*.» Eta 271-garren orri hortan, azpikaldeko bigarren deian Justo-ren oharra dio: «*Ur* en toponimia no es agua, sino río, y *Ugarte* es entre ríos o confluencia como *Conflans*, *Coblentz* y *Cofrentes*. Jamás es isla.»

Beraz, honela argiago dago.

Esan beharrean gara ere, arestian aipatzen dugun Mogel-en lana, *La Historia y Geografía de España ilustradas por el Idioma Vasconce* izeneko lan horrek, Garate jaunaren zuzendaritzan eta oharrez argitaratutakoak, Euskaltzaindiko *Euskera*-n ikusi zuela argia, XVI urtea (1935), III - IV zenbakiaren 271/315 orrialdeetan.

Bakoitzari berea.

J. S. M.